

LUR eta AMETS



Fitxa teknikoa

LUR ETA AMETS
Euskal Herria | 2020 | 1 h 23

Zuzendariak

Imanol Zinkunegi, Joseba Ponce

Gidoia

Eneko Olasagasti, Carlos Zabala

Irudi-gidoia

Jose Angel Lopetegi, Iñaki Holgado

Honako liburu honen egokitzapena

Lur eta Amets, Euskal Herriaren historia,
Uxue Alberdi, Unai Elorriaga

Irudia

Eduardo Elosegi

Muntaketa

Imanol Zinkunegi, Joseba Ponce,
Aitor Etxebeste, Pixel

Musika

Joxerra Senperena

Ekoizpena

Lotura Films, Ikastolen Elkartea, Elkar
Fundazioa, Katxiporreta, EITB

Banaketa

Gastibeltza filmak

Sinopsia

Lur eta Ametsen burasoek ezkontza bat dute asteburuan, eta haurrak Andere amatxiren etxean uzten dituzte. Amonaren eta Baltaxar gatuaren botere magikoei esker, bi abenturazale gazteek denboran zehar bidaiatuko dute. Hala, gorabeheraz bete epopeia batean, Euskal Herriko historia guzia ezagutuko dute, historiaurretik XX. mendera arte.

Zuzendariak

Bi urte. Hau da *Lur eta Amets* filmeko irudi animatuak sortzeko behar izan den denbora.

Imanol Zinkunegi eta Joseba Ponce beste 60 profesionalekin ari izan ziren elkarlanean, besteak beste, Jose Angel Lopetegi eta Iñaki G. Holgado ilustratzaileekin eta Eneko Olasagasti eta Carlos Zabala gidoi-lariekin. Zinkunegi eta Ponce lehenago ere aritu izan dira elkarlanean. Hala, *Gartxot* (2011), *Nur eta Herensugearen tenplua* (2016) eta *Bizipoza* (2017) film luzeen animazioaren zuzendariak izan ziren.

Imanol Zinkunegik urte luzez lan egin du Juanba Berasategi zuzendariarekin, hots, *Kalabaza Tripontzia* (1985) film luzea egin zuen euskarazko animaziozko zinemaren aitzindariarekin.

Joseba Ponce, aldiz, musikaren mundutik dator. Dut eta Kuraia euskal rock taldeetan jo zuen lehenik, eta ondotik *JP Lohian & Klonen Klana* bakarkako lehen diskoa argitaratu zuen. 2008an hasi zen marrazki zine-man lanean. Orduan, *Munduarien Bira* animaziozko filmeko dekoratuak marraztu zituen, eta, gainera, konposizioan espezializatzen hasi zen. Animaziozko film batean konposizio operadore-lana fabrikazioaren azken etapari dagokio, hau da, dekoratuen eta pertsonaien geruza guziak bateratzeari, kameraren efektuak zehazteari eta zenbait mugimendu eta efektu berezi animatzeari.

Bi zuzendariak, Juanba Berasategiren trebetasunari jarraikiz, film honetarako ere paleta grafiko batean marrazketa lauaren teknikaren aldeko apustua egin dute.

Denboran zehar egindako bidaia

① Beha itzazu goragoko fotogramak, eta berriz antola itzazu filmean irudiak agertzen diren ordenaren arabera.

② Fotograma bakoitzari dagokion garai historikoa zein den azal ezazu.


③ Nola kontatzen zaigu Euskal Herriaren historia *Lur eta Amets* filmean? Hauta itzazu zerrenda honetako bi hitz, eta zure hautuaren arrazoiak azal itzazu filmeko elementuak aipatuz:

- ordenatua • desordenatua •
- flashforward • flashback •
- kronologikoa • anakronikoa •

Komikitik animaziora

Animaziozko filma izan aitzin, *Lur eta Amets* argitalpen proiektu oso baten izenburua da. Ilustrazio-album bat eta haur eta gazte literaturako bederatzi eleberri biltzen ditu, Elkar eta Katxiporreta argitaletxeek 2015ean eta 2016an argitaratuak. Hasierako proiektua Euskal Herriaren historia gazte-album batzuen bidez kontatzea bazen ere, Imanol Zinkunegi zuzendariak zehaztu zuen, filma egokitzeko, eleberrietan kontatutako gertakari historiko guzien artean batzuk hautatu behar izan zituztela. Filmak, beraz, giltzarri izan ziren zenbait garai aipatzen ditu: **Neolitikoa, erromanizazioa, Orreagako gudua, sorgin auziak, Karlistaldiak, emazteen langile borrokak, ikastolen sortzea eta gaztetxeen fenomenoak.**

Lur eta Ametsen Andere “Amonamatxi” deitzen dute. Izen hori “amona” eta “amatxi” hitz sinonimoak elkartzetik dator. Pentsa daiteke idazleek nahitara hautatu dutela hitz elkartu hori, amaxiaren irudia izendatzeko bi hitz horiek erabiltzen dituzten ikusle euskaldun guziak biltzeko. Izenen sinbolismoan, ohar-taraz dezagun Lur hitzak “lurra” erran nahi duela; Lurrek badu nortasun, neskato deliberratu da, eta pertsonaia ausarta da. Amets anaia bikia, bere izenak dioen bezala, gogoetatsua eta ameslaria da.



Ipuinaren irudimena

Lur eta Ametsen denboran zehar bidaiatuz bizitzen dituzten abentura eta gertakari historikoak, batez ere, eguneroko kalapitetatik atera eta heldutasun gehiago izaten lagunduko dituzte. Bidaia inizatiko horri esker, beren nortasuna eraikitzeak aukera ukanen dute; Lurrek ulertuko du arriskurako zaletasuna duela; Ametsen ikasiko du jendarteak mutikoen inposatu kodeei segitu gabe handitzen, eta, adibidez, nahiago izanen du leize-ziloko paretak margotzea historiaurreko tribuko gizonekin ehizatzea joatea baino.

Hala, Lur eta Amets filmak ipuinen oinarritzko osagaiak berrerabiltzen ditu. Lehenik eta behin, amonaren irudia. Bakarrik bizi da zuhaitzez inguratu etxe handi batean, eta arbasoen historia transmititu nahi die ilobasoei. Denboran zehar bidaia eginaraziz, Euskal Herriaren iragana irakatsiko die haurrei. Ondotik, gatuaren irudia, hitz egiten duen eta amaxi ulertzen duen gatu beltzaren figura. Gatuaren naturaz-gaiondiko ahalmen horrek eta amonaren haurrei denboran zehar bidaia eginarazteko ahalmenak botere magikoak dituztela pentsarazten dio ikusleari; hori baieztatzen da, Erdi Aroan bidaiatzean, haurrek “amonamatxi” ikusten dutelarik ilargi betean lilurazko ikuspenak ukaiten. Bihotz oneko irakaslea eta naturaz-gaiondiko ahalmenak dituen pertsona da amona; Lur eta Amets filmean, zinezko ipuin-pertsonaia bat da.

Filmaren afixa

Lur eta Amets-en afixak edo kartelak filmeko protagonistak erakusten dizkigu, abenturak biziko dituztela erakusten duen testuinguru batean. Honako hauek deskriba eta azter itzazu:

- pertsonaiak (ezaugarri fisikoak, emozioak, jarrerak, espazioaren antolaketa)
- koloreak (beroak, hotzak, argiak, ilunak, sinbolikoak, kolore kontrasteak, koloreek agerian ezartzen dutena)
- forma geometrikoak (forma motak, kontrasteak edo harmoniak, formek agerian ezartzen dutena)
- espazioaren konposizioa eta antolaketa (leku mota, plano kopurua, elementuen kokapena espazioan, elementuen arteko erlazioa, lerroak)
- *Lur eta Amets* izenburua komenta ezazu: hitzen erranahia, etimologia...






● Sekuentzia baten analisia “Franco arrantzan”

Diktadura frankistaren garaia (1939-1975) du aipagai sekuentziak. Filmaren azken herenean agertzen da, Donostian Anderek ikastola bat sortzeari buruzko sekuentzia baino lehen. Filmaren zati labur honek Francoren arrantzaldia kontatzen du.

Izan ere, opor leku hartan bigarren etxe-bizitza baten jabe zen Franco. Hura entseatzeko da nola edo hala Donostiako badiaren arrantzatzera. Sekuentziaren interesa komikiaren kodeekiko eta alderdi karikaturistarekiko loturan datza; hortik abiatuta, erregimen frankistaren kontrako kritika egiten du.

- ① Identifika itzazu 1., 4. eta 7. fotogramen plano-eskalak eta ikuspuntuak. Lehenik, hauta ezazu plano-eskala hauetarik bat: plano oso orokorra, plano orokorra (gorputz osoa), plano amerikarra (belaunetik gora), plano ertaina (bularretik gora) eta lehen plano. Ondotik, deskriba itzazu ikuspuntuak (pikatua, normala, kontrapikatua).
- ② Zer pertsonaia mota agertzen dira sekuentzian? Beren ezaugarri fisikoen bidez nola irudikatuak dira? Azal ezazu zein den sekuentziaren tonua.
- ③ Sekuentziaren bukaeran, Andere eta ilobasoak abiadura handian heltzen dira Donostiako karriketan barna, oinezkoak hertsatuz eta La voz de España erregimenaren propaganda egunkariaren irakurlearen ondotik pasatuz. Nola ulertzen duzu haien etorrera?



ZINEMAREN HIZTEGITXOA



Hiztegi ttipiak bildumatik hartua.
Hendaia, Biarritz, Baionako hiriak – EHE – EEP
Marrazkiak: Laure Gomez

Zinemaren hiztegitxo

Petit lexique du cinéma



Zinema sailak

Catégories cinématographiques

Egokitapena: Adaptation
Animazioa: Animation
Biografia: Biographie
Dokumentala: Documentaire
Fikzioa: Fiction
Filma: Film
Sortzaile filma: Film d'auteur
Ordenagailuzko irudia: Image de synthèse
Bertsio berria: Remake

Film mota

Genre de films

Kronika soziala : Chronique sociale
Komedia : Comédie
Komedia erromantikoa: Comédie romantique
Drama: Drame
Fantastikoa: Fantastique
Beldurrezko filma: Film d'horreur
Historia filma: Film historique
Polizia-filma: Film policier
Zientzia fikzioa: Science-fiction

Iraupena

Durée

Film laburra: Court métrage
Film luzea: Long métrage
Film ertaina: Moyen métrage



Lanbideak

Métiers

Kameraria: Cameraman
Banatzailea: Distributeur :
Zinema-jabe / Zinema-gela zuzendaria: Exploitant
Ekoizlea: Producteur
Film egilea / Zinegilea: Réalisateur

Filmaren inguruan

Autour du film

Aitzin estreinaldia: Avant-première
Trailer / Aurrerakina: Bande annonce
Zinemako sailkapena: Box office
Zentsura: Censure
Zinemazalea: Cinéphile
Klixea: Cliché
Kritika: Critique
Atzera begirakoa: Rétrospective
Kitzikiragarkia: Teaser
Estreinaldia: Première



Soinua

Le son

Jatorrizko soinu-banda: Bande originale
Soinu-banda: Bande-son
Soinu efektuak: Bruitage
Zinema mutua: Cinéma muet
Musikagilea: Compositeur
Elkarrizketak: Dialogues
Bikoizketa: Doublage
Soinu-teknikaria: Ingénieur du son
Azpтитuluak: Sous-titres
Jatorrizko bertsioa: Version originale
Off-eko boza: Voix-off

Zinema filmatu

Filmer le cinéma

Hartualdi angelua: Angle de prise de vue
Irudi gelditza: Arrêt sur image
Enkoadratzea: Cadrage
Kontraeremua: Contrechamp
Kontrapikatua: Contre-plongée
Efektu bereziak: Effets spéciaux
Itzaltzea: Fondu
Lehen plano handia: Gros plan
Eremuz kanpoa: Hors champ
Panoramikoa: Panoramique
Plano zabala: Plan large
Sekuentzia plana: Plan séquence
Pikatu / Goitik beherako hartzea: Plongée
Kamera geldoa: Ralenti
Zooma: Zoom

Urratsak

Les étapes

Muntaketa: Montage
Postprodukzioa: Postproduction
Filmaketak: Prises de vues
Promozioa: Promotion
Leku bilaketa: Repérages
Gidoia: Scénario
Script / Film idazkia: Script
Storyboard / Irudi-gidoia: Storyboard
Sinopsia: Synopsis
Filmatzea: Tournage



Aktoreak

Distribution

Agentea: Agent
Karrera: Carrière
Arrisku-eszena: Cascade
Aktoreak: Casting
Hegalak: Couloisses
Ordezkoa: Doublure
Figurantea: Figurant
Heroia: Héros
Aldagelak: Loges
Pertsonaia: Personnage
Filmaketa platoa: Plateau
Kontrol-gela: Régie
Rol nagusi / Paper nagusia: Rôle principal
Izarra: Star



Zineman

Au cinéma

Arte eta entsegua: Art et essai
Pantaila: Ecran
Azken eszena: Final
Kredituak: Générique
Sarrera: Introduction
Gela anitzeko zinema: Multiplexe
Emanaldia: Projection
Zinema gela: Salle de cinéma
Eszena: Scène
Ikuslea: Spectateur
Txartela: Ticket
Krispeta-artoa: Popcorn





● Kantu baten bila nabil

Ezkerreko laukietan diren kantuen kantu-zatiak dagokien kantuaren tituluarekin gezi batez lotu itzazu.

Bi sardina topatu ziren.	KALEAN GORA
Hau dek umorea, kontsolatzeko euskal jendea.	IKUSI MENDIZALEAK
Nola aldatzen diren gauzak.	ITSASONTZI BATEN
Santurik ez laiteke fidatu zurekin.	ZENBAKITZEN
Ezkontzen zaigula Pastelero.	ARTILLERO
Baina laster ikusiko dute.	KAMARADA
Hogei, hemeretzi, hemezortzi, hamazazpi.	HARA NUN DIRAN
Karlos Zazpigarrenari.	ITURENGO AROTZA
Hendaian nago, zoraturikan.	KARLOS TXAPARI
Ilargiraino eta buelta maite zaitut.	ORIAMENDI
Eta kriskitin, kraskitin, larrosa krabelin.	MAITE ZAITUT
Hain ederra, hain polita da, eta!	DONOSTIAKO HIRU DAMATXO
Gora Jainko maite maitea.	SARDINA BAT
Ez gaude konforme.	GAZTE GARA GAZTE
Agur nere maite politari.	NOR-NORI-NORK